

## EUSKALT'ZAINDIA ETA EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

### **Euskaltzaindia, Ekin eta Jarrai**

XIX. mendean Euskararen Akademia baten ideia barreiatu zutenek, Europako bestelako ereduak kontuan hartuz, euskararen belaunez belauneko jarraipena ziurtatu ahal izateko, hiztun-elkartearen behar zahar zein berriak asebetetzeko, gure hizkuntza eguneratu eta bateratu beharraz aritu ziren, eta, horrexetarako, erakunde baten premia aldarrikatu zuten.

XX. mendearen hasieran, Hendaian, 1901eko irailean eginitako Euskaltzaleen Biltzarrean, aurkeztu zuen Sabino Aranak ortografia bateratzeko proiektua, orduko zein berehalako giro politiko zein kulturalean aurrerabiderik izango ez zuena. Nolanahi ere, Hendaiko txostenak irakurtzea baino ez da behar ohartzeko euskal gizartean gertatzen ari ziren aldaketa bizkorrek –egitura ekonomikoari, sozialari eta kulturalari dagokienez– euskararen egoeran zuten eragina, bai eta sortzen zuten kezka ere. Horri gehitu, XX. mendearen lehenbiziko zatian Europan oro har gertatzen ari ziren aldaketak eta botere-borrokak, krisia eta Lehen Mundu Gerra ekarriko zituztenak.

1917ko martxoa garrantzi handikoa izan zen Bizkaiko lurralderako, XIX. mendearen azken zatian abiarazitako abertzaletasun mugimenduak lurraldeko aginte politikorik gorena eskuratu baitzuen, Ramón de la Sota Bizkaiko Foru Aldundiko buru izendatzean, hain zuzen. Hura, erakundea berritzeko, abertzaletasunaren aldarrikapenak defendatzeko, euskara eta

euskal kultura sustatzeko egitarau batekin aurkeztu zen. Egitarau haren eraginez, auzo eskolak, euskarazko irakaskuntzaren lehenbiziko urrats sendoak, Euskal Kulturaren Batzordea eta Euskaltzaindia etorriko ziren. Inguruabar horretan komeni da gogora ekartzea, Ramón Rotaetxe, Kosme Elgezabal eta Félix Landaburu diputatuek, 1918ko urtarrilaren 25ean, Diputazioan eginiko batzarrean, Euskararen Akademia sortzeko proposamena aurkeztuko zutela –hots, 1918ko irailean, Oñatin eginiko Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresua baino hainbat hilabete lehenago–. Nolanahi ere, zirriborroa lehenagokoa da, 1917ko abenduaren 12koa, hain zuzen. Ondorioz, iturri horietara jo behar da Akademiaren sorburuaz eta egitekoek hitz egiten hasteko.

### **Iker eta Jagon Sailak, txanpon beraren bi aldeak**

Euskaltzaindiak sortze beretik bi sail izan ditu, Iker eta Jagon Sailak. Lehenbizikoa, hizkuntzaren corpusaz arduratzen da, besteak beste, goi-mailako ikerketa bultzatzeaz, hizkuntzaren arau, gomendio eta abarren oinarri izan dadin. Bigarrena, hizkuntzaren estatusaz arduratzen da eta, bereziki, euskararen biziraupena sustatzeaz, hizkuntzaren kalitatea bermatzeaz eta hiztunen eskubideak zaintzeaz. Bi-biak hasieratik jorratzen ditu Euskaltzaindiak. Izan ere, hastapenean bi erakunde independente sortzearen komenigarritasuna eztabaidatu bazen ere, azkenean, erakunde berak bi zereginak besarkatzea erabaki baitzen. Biak euskara bizirauteko, normaltasunez garatzeko beharrezkoak zirela iritzita.

Lehenbiziko habeak euskararen batasuna gidatzea izan du zeregin nagusizat. Bigarrenaren altzoan egon dira hiztunen eskubideak aldarrikatzea, ikastolak sortzea edota babestea, helduen alfabetatzea (gerora euskalduntzea gehituko zitzaion) sustatzea, bertso txapelketak antolatzea, euskara irakasleen prestakuntza (D eta B tituluak) ahalbidetzea eta abar luze bat.

Azken ildo horrek berebiziko indarra hartuko zuen XX. mendearen bigarren zatian, Espainian ezarritako diktaduraren garaian. Ostean, autogobernu erakundeak berreskuratzearekin eta herri-erakundeek euskara normalizatzeko zeregina beraien egitekoen artean jasotzearekin batera, ahulduz joan da, bereziki Euskaltzaindiak pasa den mendeko laurogeiko hamarkadaren hasieran Foruan eginiko Barne Jardunaldietan eginiko hausnarketaren ondoren. Nolanahi ere, Euskaltzaindiak hasierako eginkizunari heldu dio, batez ere, baina ez bakarrik, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian.

### **Egoera eta erronka berriak**

Euskarak azken hamarkadetan bilakaera bizkorra bizi izan du. Inoiz baino hiztun alfabetatu gehiago ditu, EAEn eta Nafarroaren zati batean ofizialkidetasuna eskuratu du, hiztun-elkarteak gaztetu egin da, EAEko irakaskuntzan D ereduak na-



gusi bilakatu da, administrazioan duen presentzia ezin guxtiatsi daiteke, hedabide indartsuak sortu dira, euskararen eremuan ari diren elkarte eta erakundeak hor daude, Unibertsitatean euskararen presentzia areagotzen ari da eta abar... egia da badirela konpondu gabe segitzen duten auziak: adibidez Nafarroa osoan eta Ipar Euskal Herrian ofizialkidetasuna eskuratzea, hiztunen galera etetea (bereziki Ipar Euskal Herrian), eremu sozio-ekonomikoan euskarak duen presentzia urria eta abar... eta egia da, aldi berean, lehen ez zituen egoera berriei egin behar diela aurre baldin XXI. mendean hiztun-elkartea indartzen segitu dadin nahi bada.

Euskarak biziberritze bizkorra bizi izan du, batez ere herri eta hiri handietan, historikoki euskara ahulen egon den eta segitzen duen eremuetan, hain zuzen... euskararen presentzia indartu da, duela gutxi arte arrotz zitzaizkion eremuetan... eta, aldi berean, horra paradoxa! Arnasguneak –nagusiki euskaraz jarduten duten eremuak– ahuldu zaizkio gure hizkuntzari... euskararen ezagutzak ikaragarri egin du gora... baina euskararen erabilerak ia hazkunderik ez du izan... eta elebidun diren gazteak erdaraz are hobeto, errazago eta erosoago bizi dira.

Beste aldera begiratu dezakegu, errealitate horri bizkarra erakutsi, gure zilborrari begira gelditu... baina errealitate berriak ditugu aurrera egiten segitzeko, estrategia bat eskatzen digutenak... eta horra etorri da deia Euskaltzaindira, euskaldun eta euskaltzale guztien biltokira, garai bateko aitzindari-tza berrartu dezan, ez bakarrik aritzeko –hori ez baita posible, ez eta desiragarri ere–, euskara biziberritzen jarraitzeko ahalegin bateratua eta partekatua egin dadin sustatzeko baik.

## **Euskara Biziberritzen Jarraitzeko erronkak, aurrekariak**

Patxi Saez Beloki soziolinguista eta Azpeitiko Euskara Patronatuaren zuzendariak, 2015eko udaberrian, Elefantea ikusi izenburuko artikulua argitara eman zuen. Bertan, azken 50 urteotan indarrean dagoen euskararen paradigma aldatu beharra dagoela aldarrikatu eta aldaketa horren gidaritzza har zezala eskatu zion Euskaltzaindiari.

Aipatu artikuluan Saezek honela dio: “Euskarazko irakas-kuntza izan da azken 50 urteotan euskararen berreskurape-naren tresnarik garrantzitsuena”. Beste hainbat arlotan ere aurrerapauso inportanteak eman dira –kulturgintzan, hedabi-deetan, Interneten–. “Pauso asko eta handiak eman ditu eus-karak azken 50 urteotan, baina oraindik aje asko dauzka, hutsune ugari. Euskara, gaur egun, 800.000 hiztun izatera iritsi da. Sekula baino hiztun gehiago ditu baina erabileran herren egiten du. Euskara euskal gizartearen bigarren hi-zkuntza bihurtu da”.

Hala, bada, “Euskal Herriko gizarteak belaunaldi berriak euskalduntzen erabilitako diru guztiak eta egindako ahalegin guztiak zapuztu egiten ditu lan munduak. Horixe dugu, gaur-gaurkoz, euskararen berreskurapenean askok ikusten ez du-ten eta begi bistan dagoen elefantea. Horixe da, gaur-gaurkoz, euskarak duen problema nagusia”.

“Ados baldin bagaude, euskararen “elefantea” edo proble-ma nagusia sektore ekonomikoan dagoela, lehen-lehenik, ze-ra hartu behar dugu kontuan: sektore ekonomiko guztien mo-torra, hemen eta munduko beste edozein bazterretan, dirua dela”. Hausnartu, planifikatu, erabaki behar dela dio: “Zalan-tzarik ez dago ikerketak egin beharko direla jakiteko hizkun-tza plangintza eraginkorra izate aldera diru-pizgarriak no-lakoak eta norainokoak izan behar ote duten enpresentzat. Eta ez hori bakarrik: ikertu, aztertu eta erabaki egin beharko da zeren truke emango diren diru-pizgarri horiek”.

Lana eta eskola txanpon beraren alde biak ditugu, Patxi Saezen ustetan: “Eskolarik gabe ezinezkoa dugu euskararen berreskurapen osoa lortzea, baina eskolarekin bakarrik ere guztiz ezinezkoa izango dugu. Eskola bezalaxe lan mundua ere giltzarri dugu euskararen berreskurapen osorako”. Hurrengo pausoa Euskararen Nazioarteko Egunaren haritik, Euskal Herriko hainbat egunkari, astekari eta agerkari digitaletan argitaratu zuen “Euskaltzaindiari proposamena eta eskutitz irekia”.

Bertan euskararentzat dinamika berria sortaraztea beharrekotzat jotzen du eta euskaltzainburuari egiten dio proposamena: “Proposatuta nahi dizudan dinamika berriaren erdigunean Euskaltzaindia dago. Euskarari dagokionez, Euskaltzaindia da euskaldun guztion artean onarpenik zabalena duen erakunde nagusia. Gainera, erakunde neutrala eta zabala da, alderdikeriarik gabekoa eta, batik bat, euskal gizarte osoaren onarpena eta aitortza duena”.

Euskaltzaindiaren mendeurrena betetzear dagoela eta, honela esaten dio Patxi Saezek: “Euskarak beste mugarri bat jarri beharra dauka ziklo berria zabaltzeko. Mugarri hori Euskaltzaindiaren Mendeurreneko Batzar Nagusi horrek jarriko luke. Euskararentzat, hil ala bizikoa da, euskal gizarte mugiarazteko eta etorkizunerako nondik norakoak finkatzeko, horrelako aukera bat ez galtzea: bigarren hizkuntza izatetik lehen hizkuntza izatera pasatzeko, gune euskaltzaletatik gizarte osora zabaltzeko, azken finean, euskarak gizartean zentralitatea eta lehentasuna lortu ahal izateko”. Eta honela amaitzen du: “Euskarak aurrera egiteko, gaur gaurkoz, lidergoa eta estrategien antolamendua behar ditu. Euskaltzaindia ur horietan zaildu-tako marinela dugu”.

Bestalde, bere proposamena “gizarteratzeko helburuarekin”, inkesta bat ere bultzatu zuen Patxi Saezek. Inkestak bi galdera egiten zituen: Euskaltzaindiak orain 50 urte Euskara-



ren Batasuna egiteko aginte makila hartu zuen bezalaxe, gaur egun, ondorengo 25-30 urteei begira, Euskararen Gizarte Erabilera bideratzeko gidaritza hartu, eta, mendeurrenean egin beharreko Biltzar Nagusi batek, ondorengo 25-30 urteetarako, euskararen gizarte erabileraren oinarriak eta strategiak finkatzeko deialdia egin behar ote duen. Ehunka lagunek bete zuten inkesta, aldeko iritzia nagusia izanik.

Horiek horrela, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak gaia aztertu eta Sustapen batzordearen esku jarri zuen. Batzordeak, 2016ko otsailean, Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak goiburupean jardunaldi bat antolatzea erabaki zuen. Jardunaldi honen hasieran Andres Urrutia euskaltzainburuak ondokoa adierazi zuen: “Historiatik gatoz, gizarte zibiletik gatoz eta gizarte zibilarekin batera lan egin nahi dugu... eta gizarte zibil horrek planteatzen dituen galderei, kezkei eta premiei, gure ahalmen arabera, erantzuna eman nahi diegu... Hau ez da egun bateko loraldia, luze joko duen bidea

izango da”. Izan ere, ekimenak jarraipena izango du, jardunaldi horren bitartez Euskaltzaindiak prozesu bati hasiera eman eta eztabaida aldia zabaldu nahi du eta. Zentzu berean mintzatu zen Sagrario Aleman Sustapen batzordeko burua: “Honek segida izango du datorren urtean. Gaurkoa hasiera besterik ez da... Euskaltzaindiaren zereginetan badago hausnarketa egitea. Hau berezia da, proposamen batetik sortua baita. Eta guk baiezkoa eman dugu, beharrezkoa dugulako elkarrekin gogoeta egitea”. Hala bada, lankidetzaren beharra azpimarratu zuen, argi utziz “ez garela sartzen gurea ez den arlo batean”. Berak baino lehen, euskaltzainburuak ideia berria azpimarratu zuen: “Ez gatoz inoren lekua betetzera. Jagon lana betetzera gatoz”.

### **Mintzaldiak**

Ekarpenak jasotzeko epea zabaldu eta egitaraua prestatu zuen Akademiaren Sustapen batzordeak. Patxi Saez izan zen, hain zuzen ere, hitza hartu zuen lehena. Honek, *Elefantea Ikusi* eta Euskaltzaindiari eginiko proposamena laburbildu zituen, bai eta zera gaineratu ere: “Euskarak beste mugarri bat jarri beharra dauka ziklo berria zabaltzeko. Mugarri hori Euskaltzaindiaren Mendeurreneko Batzar Nagusi horrek jarriko luke. Euskararentzat, hil ala bizikoa da, euskal gizartea mugiarazteko eta etorkizunerako nondik norakoak finkatzeko, horrelako aukera bat ez galtzea: bigarren hizkuntza izatetik lehen hizkuntza izatera pasatzeko, gune euskaltzaletatik gizarte osora zabaltzeko, azken finean, euskarak gizartean zentralitatea eta lehentasuna lortu ahal izateko”.

Bittor Hildagok “demokrazia linguistikoa” aldarrikatu zuen. Euskaldunon eta euskara zabaltzearen aldeko jardunaren ezinbestekotasuna azpimarratuz. Bigarren atal batean, Euskaldunon Komunitatea indartu, trinkotu eta harrotu beharraz mintzatu zen.



Euskaltzaleen Topaguneko Kike Amonarrizek eta Jasone Mendizabalek gaur dugun errealitateari begira jarri eta asko egin dela azpimarratu zuten. Nolanahi ere, aurreikuspenak ez direla bete eta egoera honek ez gaituela asebetetzen azpimarratu zuten. Gauzak horrela, eraldatu beharreko lau ardatz nagusi jarri zituzten jomugan: komunitatea, ideologia, jarduera eta hegemonia. Eta aurrera begira zenbait ardatz azpimarratu zituzten: hiztun komunitate emantzipatua; epe luzeko plan-gintza eta hizkuntza politika; lege babesa, baliabideak eta erreferentziak; egitura eta autoritatea; diskurtso multzo koherentea; alderdien aldetik arnagune politikoa; motibazioa eta bizi-indarra.

Patxi Juaristiren esanetan, “euskaraz bizi direnen eta erdaraz bizi direnen arteko gatazka guztiz gaunditzea ezinezkoa dela onartuta ere, iruditzen zaigu posible dela hauen arteko bizikidetza hobegotzea. Horretarako, ezinbestekoa da arau, politika edota lege argiak egitea. Baina arau horiek barnerratuak eta errespetatuak izateko, balio etikoetan oinarritutako diskurtsoak behar ditugu... Gure ustez, hizkuntza-bizikidetzaren aldeko diskurtso berria egia, askatasuna, errespetua, tolerantzia eta justizia balio etiko eta moraletan oinarritu beharko litzateke. Izan ere, balio horiek kontzientzietan barneratuz, modu kritiko eta zintzoan norberarentzako zein besteentzako onena bilatzeko joera barneratzen dugu, gizakien eta hizkuntza-komunitateen duintasunean oinarritutako elkarbizitza hobegotzen eta errazten da, eta, ondorioz, baita elkarbizitza linguistikoa ere”. Bere iritziz, “balio etikoetan sortu behar den diskurtso berri horrek balio beharko luke ez bakarrik espainolaren, frantsesaren eta euskararen arteko bizikidetza hobegotzeko, baita azkeneko urteetan gure herrira bizitzera etorri diren etorkinen hizkuntzekiko harremanak hobegotzeko ere”.

Soziolinguistika Klusterreko Olatz Altuna euskararen kale-erabileraren erronkaz mintzatu zen. Emaizak aztertu eta

hainbat datu komentatu zituen: adibidez, haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean jasotzen direla erabilerak daturik altuenak. Era berean, proposamenak ere egin zituen: “norbanakoari dagokionez, erabilerako motibazioa sustatu behar da”. Gizartearen esparruan, besteak beste, hizkuntza politika eta lege estatusa aipatu zituen eta gizarte babesaren beharra azpimarratu. Hurbileko taldeak ere -dimentsio mikrosoziala adierazten dute- inportanteak dira, eta hor harreman sarea eta lan mundua nabarmendu zituen.

Bikain Urkidi Lemoizko Euskal Giroitze Barnetegiko irakasle-monitoreak azaldu zuenez, “barnetegian ez diogu hizkuntzaren zuzentasunari erreparatzen, komunikazioa lehenesten dugu. Gure lan-gaia hiztunaren hizkuntzarekiko jarrera da. Jarrera eraldatu dadin, beste arlo eta gai batzuk ukitu eta mugitu behar dira. Hizkuntza bat edo beste erabiltzea afektibitatearekin lotuta dagoen hautua da, afektu eta kontzientziarekin. Horregatik, euskararekiko harreman afektiboan eragin behar dugu”. Era berean, ondokoa gehitu zuen: “Barnetegian lortutako erabilerak ez du ziurtatzen gerora jarraipena izatea. Horregatik, erabileran baino gehiago hizkuntzarekiko jarreraren zentratzen gara, jarreraren eraldaketan. Hitztunaren jarreraren sorrerako osagaiak hausnar-gai jartzen ditugu: sinesmenak, aurreiritziak, mugak... Hausnarketatik sor daitekeen eraldaketa bai izan daiteke sakona eta iraunkorra. Hitztun kontzientziak lortu nahi baititugu”. Honela amaitu zuen: “Guk ez dugu pertsona aldatu nahi, euskararekiko duen harremana baizik, eta, horretarako, hizkuntzarekiko harreman afektiboa berariaz zaindu. Euskaraz aritzea arau izatetik norberaren oinarri izatera pasatzea da gakoa, euskaraz egin behar izatetik egin nahi izatera. Erabakia norberak hartuko du, nor bere eritimoan”.

Josu Waliño PuntuEus fundazioko zuzendariak euskararen erabilerari buruz hitz egitean, Interneten garrantzia azpimarratu zuen. Euskarak komunitate digital aktiboa daukala esan

zuen, baina komunitate txikia dela. Horrexegatik, euskararekin konpromisoa dutenak erakarri behar direla baieztatu zuen: “sarean bizirik dauden hizkuntzen %5 horretan euskara ikusgai mantentzeko”.

Euskal Konfederazioko kidea eta Seaskako presidentea den Paxkal Indoren hitzetan Frantziak ez ditu legez ezagutzen tokiko hizkuntzak edo, gehienez, manera “arin batez” aitortzen ditu (Konstituzioaren 75.1 artikulua: Eskualde hizkuntzak Frantziaren ondarean daude). Errepublikaren Konstituzioaren bigarren artikulua, ordea, Errepublikaren hizkuntza frantsesa dela baieztatzen du. Horiek horrela, Konstituzio Gorteak tokiko hizkuntzei buruzko aipuak “eskubide berririk” ez duela sortzen ebatzi du. Beraz, Indoren aburuz, Frantziarengandik ezer gutxi espero liteke, are gehiago ikusiz zein harrera txarra egin zaion Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berresteko egin den azkeneko eztabaidari.

Bestalde, Ipar Euskal Herriko hautetsiek bere sasoian hautatu zuten egituraketa –Lurralde Kolektibitate Espezifikoa–, François Hollanden lehen gobernuak baztertu zuela gogora ekarri zuen. Gauzak horrela, orain eztabaidan dagoen Herriarteko Lankidetzarako Erakunde Publiko bakar baten antolaketak (gaur egun Ipar Euskal Herrian 10 daude) euskararentzat zentzurik ote duen, faltan zer izango duen, testuinguru berri horretan Euskararen Erakunde Publikoa zer bilakatu daitekeen, hizkuntza politika nork garatu beharko duen eta gizarte zibilak zein toki izango duen aztertu zituen.

Jardunaldiari amaiera S. Alemanek eta E. Osak, Sustapena batzordeko buruak eta idazkariak, hurrenez hurren, eman zioten. Gogora ekarriz Jardunaldia prozesu baten hasiera baino ez dela, ondoren, jarraipena eta bestelako kate-begiak izango dituen.

## Jardunaldiaren jarraipena

- Jardunaldiaren ostean, eztabaidari jarraipena ematen dion prozesua diseinatzeko eta bultzatzeko, Euskaltzaindiak zortzi kidez osaturiko lantalde bat eratzea erabaki zuen. Hona hemen lantalde horretarako izendaturiko kideak:
- Sagrario Aleman, Sustapen batzordeko burua, euskaltzain osoa eta Euskaltzaindiko diruzaina. Iruñeko Arturo Campion Euskaltegiko zuzendaria.
- Erramun Osa, Sustapen batzordeko idazkaria, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko idazkariordea.
- Jon Aizpurua, Sustapen batzordeko kidea. Eusko Jaur-laritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako plangintza eta azterlanetako arduraduna.
- Gotzon Lobera, Sustapen batzordeko kidea. Hiztegi Juridikoa eta Parlamentarioa egiten ari den lantaldeko koordinatzailea. Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendari ohia.
- Ibon Usarralde, Sustapen batzordeko kidea.
- Xabier Erize, Sustapen batzordeko aholkularia, euskaltzain urgazlea eta Euskal Filologian Doktorea.
- Iñaki Martínez de Luna, euskaltzain urgazlea, Soziologian Doktorea eta Hizkuntza Plangintza graduondoaeren zuzendaria.
- Patxi Saez Beloki, soziolinguista.

Euskaltzaindiak, euskararen elkarte eta erakundeek, euskarra bizirautea eta normalizatzea bilatzen dugun guztiok euskarak aurrera egiteko, lidergo partekatua eta estrategien antolamendu berri bat irudikatzeko erantzukizuna dugu... bakoitzak

bere aldetik jardunez gero, porrota kontu ziorra da... elkarrekin, auzolanean saiatzen bagara, beste bultzada bat eman ahal izango diogu euskarari, gure hizkuntzari, mendean, azpian hartu nahi gaituztenen aurrean garen bezala duintasunez azalduz, irautea nahi dugula erakutsiz. Hala biz!

*Erramun Osa*

Euskaltzaindiaren idazkari ordea